

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako zurgintza industrien sektorearen hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia luzatzeko erabakia

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da, Arabako zurgintzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia luzatzeko erabakia erregistratu, argitaratu eta gordailutzea Hitzarmenaren kodea: 01001005011981.

AURREKARIAK

2020ko uztailaren 3an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen SEA Empresas Alavesas eta langileen ordezkariak UGT, ELA, LAB eta CCOO, 2020ko ekainaren 17ko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 6a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

Akta, Arabako zurgintza industriren sektoreko hitzarmen kolektiboaren negoziazio-mahaiarena

2020ko ekainaren 17an, 10:00etan, Vitoria-Gasteizen bildu da Arabako zurgintzako industriren sektoreko hitzarmen kolektiboa negoziatzeko mahaiarena, hain zuzen ere Lan Harremanen Kontseiluaren (PRECOren) Arabako lurralde-egoitzan. Honako hauek izan dira bileran, PRECO kudeatzeko lurralde-arduradunarekin batera: UGT, ELA, LAB eta CCOO sindikatuetakako ordezkariak eta SEA-Arabako Enpresak elkarteko ordezkariak bertaratu dira Preco kudeatzeko lurralde-arduradunaren aurrean. Lan Harremanen Kontseiluko PRECO kudeatzeko lurralde-arduraduna aritu da akten idazkari lanetan.

2016-2018 aldirako Arabako Zurgintza Industriren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren Negoziazio Batzordea bildu da, eta batzordeak honakoa ondorioztatu du: hurbil dago indarrean dagoen hitzarmenak bere ondorioak amaitzeko aurreikusten duen data.

Hori dela eta, alderdiek sektoreko hitzarmen kolektiboaren aurreraeragin-aldia 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea erabaki dute, egun hori barne. Izan ere, akordioa 2020ko ekainaren 30ean bukatuko da.

Erabaki hori aho batez hartu du hitzarmen kolektiboaren negoziazio-batzordeak, Langileen Estatutuaren Legearen 86.3 artikuluan bere eginez, zeinak hitzarmen baten negoziazioan akordioak egiteko aukera ezartzen baitu.

Era berean, negoziazio-batzordeak aipatutako akordioa Lan-Agintaritzari helaraztea erabaki du, azken horrek berau erregistratu eta ofizialki argitaratu dezan. Era berean, Lan Harremanen Kontseiluko presidentea ahaldundu dute izapide horiek egiteko.